

BIDEAK sormen-bekak

Berako eta Urruñako sortzaileak elkarrekin aritzeko 6 bekarako deialdia

OINARRIAK

Berako eta Urruñako Herriko Etxeek, Bideak proiektuaren baitan, izen bereko sormen bekak deitu dituzte. Bideak proiektuak Bera eta Urruñako arteko bide zaharrak berreskuratuz bertako ondarea bildu, ezagutzera eman eta zabaltzeko nahi du, bi herrien arteko harremanak sendotzearekin batera. Horretarako herriko kultur eragileen eta artisten parte-hartzea sustatu nahi da. Beka-deialdi hau honako oinarri hauen arabera egituratuko da:

1. Bekara 2022ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik Berako edo Urruñako herrietan erroldatuta dagoen edozein sortzaile aurkeztu ahal izanen da, baita bi herrietako kultur elkarteak ere.
2. Proposamenak banaka edo taldean aurkeztu ahal izanen dira. Taldean aurkeztuz gero, kultur elkarte egituratu baten bidez edo egituratu gabeko sortzaile-multzo baten bidez osatu ahal izanen da. Azken kasu honetan taldeko kideen 2/3 gutienez bi herrietako batean erroldaturik egon beharko du. Taldean aurkeztutako hautagaiek bozeramale bat izendatu beharko dute, Herriko Etxeekin harremana izateko.
3. Bekaren asmoa da Bideak proiektuaren baitan berreskuratuko diren bideekin lotutako sormen-lanak egitea, edozein diziplinako dela ere: musika, arte plastikoak, antzez-arteak, ikus-entzunezkoak, argazkilaritza, literatura...
4. Berako eta Urruñako hiruna artista (bakarkako edo talde) hautatuko dira, eta bikoteak osatuko dira (Berako bat eta Urruñako bat) sormen-lana elkarrekin gara dezaten. Bi artistek ez dute derrigor diziplina berekoak zertan izan. Herrietako batetik hiru beketakoren bat eman gabe geldituko balitz, bertze herriko norbaitekin osatu ahal izanen da.
5. Emakumeek kultura arloan duten papera ikusgarriagoa egite aldera, aukeratutako sei artistetatik hiru, gutienez, emakumeak izan beharko dute. Taldeen kasuan, berriz, taldekideen % 60k izan beharko du emakumea gutienez, emakume artisten lekua hartzeko.
6. Egitasmoak euskara hutsez izatea lehenetsiko da, hori baita tokiko hizkuntza, eta bi herriak lotzen dituen. Nolanahi ere, euskara ez bertze hizkuntzek lekua izan dezakete proposamenean, gehienez ere % 20an (hizkuntza azken emaitzan erabiliko denean).
7. Beka bakoitzaren zenbatekoa 2.500 eurokoa izanen da. Kopuruaren erdia beka esleitutakoan ordainduko da, eta bertze erdia jendearen aitzinean aurkeztu ondotik.
8. Bekak eman gabe gelditzen ahal dira.
9. Beka-deialdi honetara aurkezteko artista bakoitzak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du, euskara hutsez:

- a. Artistaren edo taldearen curriculum laburra (gehienez ere 2 orrikoa). Taldeen kasuan, taldearen curriculum aurkeztuko da, eta proiektuan parte hartuko duten artisten zerrenda gehituko da. Curriculumean jaso beharko dira: posta helbide bat jakinarazpenak jasotzeko, posta elektronikokoa eta telefono mugikorraren zenbakia.
- b. Motibazio-gutuna. Egitasmoan parte hartzeko interesa zerk piztu dien, zergatik parte hartu nahi duten argudiatzen duen idatzia (gehienez ere 2 orrikoa).
- c. Egitasmoak bilatzen dituen helburuen artetik (bideak berreskuratu, ondarea ezagutzera eman eta herrien arteko harremanak sendotu) sormena nondik bideratzea gustatuko litzaieken azaltzen duen kontakizuna (gehienez ere 2 orrikoa). Kontakizun horrek derrigor bildu beharko du genero-ikuspegia (nola landuko den), eta idatzi berean zehaztu beharko da euskarak proiektuan izanen duen tokia. Nahi izanez gero, idatzi honi norberaren diziplina artistikoko euskarriren bat erantsi ahal izanen zaio (formatu digitalean). Hau ez da derrigorrezkoa izanen, eta sormenaren nondik norakoak ulertzeko lagungarri gisa baino ez da kontuan hartuko.

10. Dokumentazioa **2022ko abuztuaren 24ko eguerdiko 12:00ak baino lehen** aurkeztu beharko da. Deialdi honetan parte hartzeko eskabideak Berako Udaleko Erregistroan aurkeztu ahal izango dira, edo, bestela, Egoitza Elektronikoa erabilita (<https://sedeelectronica.bera.eus/eu/tramites/registro-electronico/>), edota Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein bide erabilita. Azken kasu horretan, izangaiak posta elektronikoz jakinarazi beharko dio inguruabar hori Berako Udalari, 24 orduko epean (bera@bera.eus). Gainera, eskabidea posta bulego batean aurkezten bada, gutun-azal irekian egingo da, posta zerbitzuko langileek, ziurtatu aurretik, data eta zigilua jar diezaioten eskabideari. Dokumentazioan akatsik ikusiz gero, edo osatzeko eskatuz gero, astebeteko epean erantzun beharko du hautagaiak. Eskatutako dokumentazioa aurkeztuko ez balu, kanpoan geldituko litzateke hautagaitza.

11. Bi Herriko Etxeek izendatutako epaimahai batek sei bekak hautatuko ditu, beranduenez irailaren 2rako. Honako alderdi hauek baloratuko ditu epaimahaiak:
 - a. Motibazio-gutunaren edukia
 - b. Sormenaren kontakizuna
 - c. Genero-ikuspegia
 - d. Euskararen tratamendua

Hautatutako artistak diziplina berekoak izan badaitezke ere, ahalik eta diziplina gehien ordezkatuak izatea bilatuko da.

12. Bekaren esleipenarekin batera, bertze herriko zein artistarekin lan egingen duten jakinaraziko zaie, eta sormen-lanerako bideetako bat esleituko zaie, eta bide horri lotutako gai bat, sormen-lanaren abiapuntu izanen dena. Bikoteak borts asteko sormen-prozesua egingen du, eta azken

emaitza jendearen aitzinean aurkeztu beharko dute. Bekaren deitzaileekin adostuko da proposamena non aurkeztu, baina bidean bertan izatea lehenetsiko da. Eguna antolatzaileekin adostuko bada ere, urriko bigarren hamabortzaldian izan beharko du, derrigor.

13. Sormen-lanaren emaitzaren jabetza sortzaileena eurena izanen da, baina beka honen kopuruaz haratago bi Herriko Etxeek ez dute bertzelako diru-ekarpenik egingen, ez egile-eskubide, ez emanaldi-ordainsari, ez bertzelako kontzeptupean. Sormen-prozesuko materialak ere artisten esku geldituko dira.
14. Sormen-prozesurako Berako eta Urruñako Herriko Etxeek beren instalazioak paratuko dituzte sortzaileen eskura.
15. Beka jaso duen artista edo talderen batek sormen-prozesua etenen balu, edo deialdi honen arabera hartutako konpromisoak beteko ez balitu, bekaren kopuru osoa itzuli beharko du.
16. Oinarri hauetan bilduta ez dagoen bertze edozein alderdiren gainean, antolatzaileek izanen dute azken hitza.
17. Bekara aurkezteak eta esleitua izateak oinarri hauek onartzea berarekin dakar.

Bera-Urruña, 2022ko abuztuaren 1a.